



ALARDE PUBLIKOAREN ALDE

Irungo Udala

Jose Antonio Santano alkate jaunari zuzenduta

Irungo Alarde Parekidearen Juntak eskatu egiten dio Irungo Udalari hiritar guztientzako Alarde bat antola dezala.

23 urte dira Irunen bi Alarde egiten direla:

- bata, emakumeak kantineren paperean baizik onartzen ez dituen;
- bestea, ez bazterzailea, Emakunderen eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren babes ekonomikoaz partikular talde batek antolatua, parte hartu nahi duten orori zabalik.

Alardea mendetan eta mendetan antolatu du Herriko Etxeak; areago, udal ez baina kontzeju huts zelarik ere antolatzen zuen, eta XIX. mendearen bigarren erdialdeaz geroztik eutsi dio gaur egun ezagutzen dugun erari. Uste dugu tenore honetan gure hiriak berriro merezi duela Udalak antolatutako Alardea.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-printzipioa, bai eta sexuagatik ezin bazterkeriaren debeku berariazkoa ere, gure toki-erakundea barne den ordenamendu juridiko guztietan jasota daude.

Halaber, gure Autonomia Estatutuak ere ezartzen du botere publikoen eginbearra, baldintzak sustatzekoa eta oztopoak gainditzekoa, pertsonak eta beraien taldeek erdiets dezaten berdintasun benetako eta eraginkorra.

Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna betebeharrak moral eta politikoa da, emakumeen

Ayuntamiento de Irun

A la atención del Sr. Alcalde Jose Antonio Santano

La Junta del Alarde Igualitario de Irun solicita a este Ayuntamiento la organización de un Alarde para toda la ciudadanía.

Desde hace 23 años en Irun se celebran dos Alardes:

- uno, que no permite la participación de las mujeres, excepto en el papel de cantineras;
- otro, no discriminatorio, organizado por un grupo de particulares con el apoyo económico de Emakunde y la Diputación Foral de Gipuzkoa, que permite la participación de todas las personas que así lo desean.

La organización del Alarde por parte del Ayuntamiento es una tradición de siglos, anterior incluso a su constitución como municipio, desde que era un concejo, y ha pervivido en sus formas actuales desde la segunda mitad del XIX. Pensamos que ha llegado el momento de recuperar esta tradición municipal para nuestra ciudad.

El principio de igualdad de mujeres y hombres, así como la expresa prohibición de cualquier tipo de discriminación por razón de sexo, están recogidos en todos los ordenamientos jurídicos en los que se enmarca la institución local.

Así mismo, nuestro Estatuto de Autonomía establece la obligación de los poderes públicos de promover condiciones y remover obstáculos para que la igualdad de las personas y los grupos en los que se integran sea real y efectiva.



ALARDE PUBLIKOAREN ALDE

eskubideak bermatzea dakarrena, bai eta pertsona guztientzako aukera berak eraikitzea ere. Beraz, zuzenean dei egiten die arduradun politikoei, nolako jokabidea duten benetako berdintasuna ezinezko bihurtzen duten oztopoez esparru guztietan, jai girokoetan barne, desager dadin.

Emakundek dioen bezala, berdintasuna elkarbizitza-balio bat da, eta urteotan jendarte osoak, baita udal erakundeak berak ere, urratsak egin ditu aurrerantz berdintasunaren aldeko konpromisoan hainbat esparrutan.

Horregatik, uste dugu iritsi dela goian aipatutako konpromiso hori gure hiriko jaietan ere gauzatzeko tenorea; hain zuzen, Udalak Alarde parekidea sustatu eta antolatuta.

Gure eskabidea onetsiko eta erantzun positiboa emango diozulakoan.

Alarde Parekidearen Junta
Irunen, 2022/04/11.

La igualdad entre mujeres y hombres es un imperativo moral y político que requiere garantizar los derechos de las mujeres y construir las mismas oportunidades para todas las personas. En este sentido, interpela directamente a los responsables políticos sobre su papel en la desaparición de los obstáculos que hacen imposible una igualdad real en todos los ámbitos de la vida, también en el festivo.

Como señala Emakunde, la igualdad es un valor de convivencia, y a lo largo de estos años toda la sociedad y también la institución municipal han ido dando pasos en el compromiso con la igualdad en diferentes ámbitos.

Creemos por ello que ha llegado el momento de que ese compromiso se materialice en las fiestas de nuestra ciudad, con un Alarde igualitario auspiciado y organizado por este Ayuntamiento.

Esperamos que sea receptivo a nuestra petición y le dé una respuesta positiva,

Junta del Alarde Igualitario
Irun 11/04/2022.